



ORMAZABALREN ERRONKAREN OINARRIAK

1. Zer da BiOK!?

Biok! BEAZek (Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakundea) eskaintzen dituen negozio-aukera berrien sorrera sustatzen duen topagunea da, eta bi helburu ditu:

- Bizkaiko enpresa erreferenteen lehiakortasun-posizionamendua sendotzea, tokiko eta nazioarteko talentuari eta gaitasunei sarbidea emanez.
- Bizkaira erakartzea eta bizkortzea startupak, ETEak edo gaitasun handiko beste erakunde batzuk, bai teknologikoak bai ezagutza-arlo jakin batzuetakoak, merkatuko lehen aukera emanez.

Proposamenak aurkeztu ahal izango dizkiote BiOK! Plataformari munduko edozein lekutako startupek eta erakundeek. Erreferentziazko erakunde bakoitzak bere garapen-lehentasunak identifikatuko ditu erronken bidez, eta erronkek beren azterketa- eta hautaketa-prozesuak ekarriko dituzte berekin.

Benetan uste dugu modu irekian eta elkarlanean berritzea dela dibertsifikatzeko eta hazteko biderik arrakastatsuen.

2. Dokumentuaren helburua

Dokumentu honetan, BEAZek, zerbitzua antolatzen duen enpresak, eta Ormazabalek ekosistema berritzailera bideratutako erronkan parte hartzeko oinarriak ezartzen dituzte.

3. Parte hartzeko baldintzak

Edozein ekintzailek, startupek, ETEk edo enpresa teknologikok parte hartu ahal izango du erronkan, baldin eta planteatutako erronka partzialki edo osorik konpontzen lagun dezakeen proposamen bat badu. Planteatutako erronkari konponbidea eskaini nahi dioten erakundeek ez dute zertan Bizkaiko lurraldean kokatuta egon.

Jatorriz edo gerora baldintza horietakoren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak erronkatik kanpo utzi ahal izango dira, eta edozein zerbitzu jasotzeko aukera guztiak galduko dituzte, eta ez dute eskubiderik izango deialdi honen antolatzaileei ezer erreklamatzeko:

- Startup, ETE edo erakunde berak proiektu bakar batekin parte hartu ahal izango du, banaka edo hirugarrenekin batera.
- Soluzioaren garapenean parte hartzen duten proiektu-taldeko kideek adinez nagusiak izan beharko dute eta legezko gaitasuna izan beharko dute.
- Parte-hartzaileek erronkan erregistratzean ematen dituzten datuek egiazkoak eta osoak izan behar dute.

Deialdi honen antolatzaileek eskubidea izango dute erronka ez onartzeko edo hari baja emateko, aldez aurretik abisatu gabe, beren ustez iruzurrez, abusuz, programaren

espirituaren edo legearen aurka, hirugarrenen eskubideen aurka eta/edo fede onez jarduten duten parte-hartzaile guztiei, hori guztia jokabide horien ondoriozko erantzukizunak alde batera utzi gabe; izan ere, parte-hartzaileek beren gain hartuko dituzte erantzukizun horiek, oso-osorik, eta antolatzaile horiei kalterik egin gabe.

Nolanahi ere, edozein parte-hartzaileri baja eman ahal izango diote, baldin eta antolatzaileen izen onaren aurkakoa izan badaiteke haren jarduna (edo erlazionatutako pertsona batena). Era berean, edozein parte-hartzaile ez onartzeko eskubidea gordetzen da, planteatutako erronkei erantzun egokia ematen ez dietela ulertzen dutelako edo, onartutako proiektu kopuruagatik edo beste edozein arrazoiengatik.

Erronka honetan izena emanez, parte-hartzaileek oso-osorik eta inolako erreserba edo baldintzarik gabe onartzen dituzte Oinarri hauetan jasotako terminoak.

4. Eskabideak aurkeztea

Ekimen honetan parte hartu nahi duten erakundeek dagokion eskabide-inprimakia beteko dute, eta inskripzioari erantsiko diote eskatzen zaien edo interesgarri iruditzen zaien informazio guztia.

✓ Eskabidea plataforma honen bidez aurkeztu ahal izango da:

<http://bizkaiaok.eus>

✓ Informazio gehigarria:

info@bizkaiaok.eus

Eskabide-inprimakian honako informazio hau jasoko da:

- Harremanetarako informazioa.
 - Enpresaren informazio orokorra.
 - Proposatutako konponbidea.
 - URL – Proposatutako konponbidea azaltzen duen bideoa (aukerakoa)
 - Proposatutako konponbidearekin lotutako berrikuntza-elementuak (produktua, prozesua, marketina eta antolaketa) edo I+Gko emaitzak
 - Proposatutako konponbideari lotutako teknologiak (halakorik badago).
 - Konponbidearen garapenean parte hartuko duen taldea.
 - Onurak.
 - Arriskuak.
 - Laguntzaileak.
 - Garapen-egoera.
 - Kostua.
 - Epeak.
 - Beste ohar batzuk.
- ☐ Datu Pertsonalak Babesteko politika onartzea

Hautagaitzak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 7an hasiko da, eta 2026ko ekainaren 11ko arratsaldeko 14:00etan (GMT+1) bukatuko da.

5. Ebaluazio-prozesua

Proiekturik onenak aukeratzeko, ebaluazio-talde bat eratuko da hautaketa-prozesua burutuko duten Ormazabalen eta Beaz taldeetako pertsonekin.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Beazek aurkeztutako eskaeren kalitatearen lehen berrikuspena egingo du, eta eskatutako informazioa behar bezala bete ez duten eskabide guztiak baztertuko ditu (astebete).

Ormazabalek izendatutako pertsonak aurkeztutako eskabideak aztertu eta ikuspuntu teknikoetik baloratuko dituzte, proiektuen aurre-hautaketa egin arte (hiru aste).

Proiektu finalistek In factory innovation trip, baterako sorkuntzarako tailer batean parte hartuko dute. Bi egun izango ditu:

- 1. eguna: erronkan eskatutako eskakizun funtzionalak zein neurritan bete diren jakitea da helburua. Saio honetan, eskuz esku lan egingo da Ormazabaleko teknikariek, proposatutako soluzioak elkarrekin sortzeko eta, horiek, lortu nahi den helburura nola egokitu daitezkeen ikusteko.
- 2. eguna: hautatutako proiektuak beren soluzioa jasotako feedback-arekin egokitzen saiatuko dira, eta azken soluzioaren aurkezpena egingo da.

"In factory innovation trip" egunerako aurreikusitako datak 2026ko uztailaren 14 eta 16a izango dira.

Orduan erabakiko ditu ebaluazio-taldeak Irabazleak. Emaizak posta elektronikoz jakinaraziko dira, 2026ko uztailaren 17an.

Adierazitako datak orientagarriak dira, eta, behar izanez gero, aldatu egin daitezke. Proiektua aztertu eta ebaluatzeko, parte-hartzaileek baimena ematen diete antolatzaileei deialdi honetan parte hartzeko esparruan parte-hartzaileak emandako ideiak, dokumentazioa eta informazioa jakinarazteko ebaluazio-taldeko kideei.

Ebaluazio-taldeak proposamen finalista bakoitzaren alderdi hauek baloratuko ditu:

- Berrikuntza: proposatutako konponbidearen berrikuntza-maila baloratuko da.
- Proiektuaren eraikuntza-maila: proposatutako konponbidearen garapen-maila.
- Proiektu-taldea: erakunde parte-hartzaile(ar)en taldea, esperientzia, dedikazioa, merkatu-ezagutza, kontaktuak eta abar baloratuko dira.
- Epeak: konponbidea merkatuan erabilgarri egon daitekeen denbora.
- Bideragarritasuna: proiektuaren bideragarritasuna, konponbidearen kostua eta ingurune erreal batean mantentzearen kostua.
- Proiektuaren irismena: proposatutako konponbidearen erantzun maila eta planteatutako arazoari nola heltzen dion baloratuko da.

6. Proiektu irabazlea

Ormazabalek erronkaren enpresa irabazlea hautatuko du, eta esparru-kontratu bat gauzatzeko konpromisoa hartzen du proiektu pilotu bat garatzeko asmoz, 15.000€ arte.



Enpresa irabazleak gutxi gorabehera 6 hilabeteko epea izango du proiektua gauzatzeko. Epe hori banaka adostuko da Ormazabalekin.

7. Euskadin aldi baterako ezartzen laguntzea

Beazek garatzen dituen jarduera-ildoen artean, Bizkaiko lurraldean gaitasun eta startup berriak erakartzea eta atxikitzea dago.

Ildo horretan, eta Ormazabalek hautatutako proposamena egoitza sozialik edo lantokirik

Euskadin ez duen startup batetik badator eta proiektu pilotua garatzeko prozesuan gutxienez 2 hilabeteko benetako egonaldia egiaztatu ahal badu soilik, startup-ak 10.000€ arteko saria jaso ahal izango du egonaldi horri lotutako gastuak estaltzeko.

Sari hori eskuratu ahal izateko, startup-ak, aldez aurretik, memoria ekonomiko bat eta gastu horiek egiaztatzen dituzten fakturen kopia aurkeztu beharko dizkio Beazi. Gainera, Bizkaian egindako egonaldia gutxienez 60 egunera iritsi dela egiaztatu beharko du.

8. Jabetza industrial eta intelektual

Une oro, hautagaitza aurkeztu duen pertsonaren edo enpresaren jabetzakoak izango dira proiektua bera eta bertatik erator litezkeen patenteak. Erronkan parte hartzeak ez du esan nahi erreferentziako enpresarako hautagai den pertsonak edo enpresak partaidetza lagako dionik.

Hala ere, proiektu irabazleak konponbidearen benetako pilotu bat egiten badu erreferentziazko enpresarekin, bi alderdiak lotuko dituen kontratu bat sinatu beharko da. Kontratu horretan, besteak beste, pilotuaren exekuziotik sortutako jabetza industrial/intelektualen ondoriozko erabilera-baldintzak adostuko dira.

9. Azken Oharrak

Parte-hartzaileek berariaz baimena ematen dute, deialdi honetan parte hartze hutsagatik, antolatzaileek beren izena, norbanako gisa, startuparena eta haiei lotutako irudiak edota logoak erabil ditzaten, korporazio-, publizitate- eta sustapen-helburuekin eta/edo proiektu irabazlea gainerako parte-hartzaileei eta, oro har, publikoari ezagutarazteko, inolako lurralde- edo denbora-mugarik gabe, eta haien alde inolako ordainsaririk sortu gabe.

Erronka hau aldatu, eten, desaktibatu eta/edo bertan behera utzi ahal izango da, hala eskatzen duten inguruabar justifikatuak gertatzen badira.

Era berean, antolatzaileek eskubidea izango dute onura guztiak edo batzuk eman gabe uzteko, baldin eta aurkeztutako proiektu bakar bat ere ez bada finalista edo irabazlea ebaluazio-taldearen iritziz.